# Segurako Ordenantza Orokorrak (1723)

(Segura general bylaws (1723))

Intxausti Rekondo, Joseba
Euskaltzaindia. Portuetxe, 16 – 3. 20018 Donostia
jintxausti@euskaltzaindia.net

BIBLID [1136-6834 (2009), 36; 231-253]

Jaso: 2009.02.04
Onartu: 2009.07.23

---

*Idazlan honen xedea, Segurako Ordenantza Orokorren aurkezpena egitea da. Orain arte eskuratu ahal izan diren agirien artean (Erdi Aroko eta gerokoetan) Seguran ez da aurkitu izan, dakigunez, honelako Ordenantza Orokorrik, sektoreka emandako hainbat ezagutzen den arren. Horregatik, Hiribilduko agiri historiko baliotsua da 1722-1723.eko hau, eta Gipuzkoako beste Udal Ordenantza Orokorrekin aldera daitekeena.*

*Giltza-Hitzak: Ordenantzak. Hiribilduak. Tokiko historia. Udal Erakundeak. Gipuzkoa. Segura. Aro Modernoa.*

*La presente comunicación tiene por objeto presentar las Ordenanzas Generales de Segura, elaboradas en 1722 y aprobadas por Felipe V en 1723. La documentación conocida en dicha Villa ofrecía sólo Ordenanzas sectoriales, tanto en la Edad Media como en los siglos que siguieron. En este caso, el documento nos ofrece una visión general de la normativa municipal, y permitirá un estudio comparativo con otras Ordenanzas municipales guipuzcoanas, del mismo carácter.*

*Palabras Clave: Ordenanza. Villa. Historia local. Ayuntamiento. Gipuzkoa. Segura. Edad Moderna.*

*Cette communication a pour objet de présenter les Ordonnances Générales de Segura, élaborées en 1722 et approuvées par Felipe V en 1723. La documentation connue dans cette Ville offrait seulement des Ordonnances sectorielles, tant au Moyen Age qu'au cours des siècles suivants. Dans ce cas, le document nous offre une vision générale de la norme municipale, et permettra une étude comparative avec d'autres Ordonnances municipales de Gipuzkoa, du même caractère.*

*Mots Clé : Ordonnance. Ville. Histoire locale. Municipalité. Gipuzkoa. Segura. Temps Modernes.*

Izenburuak dioenaren arabera, berri-emate honek Gipuzkoako Segura Hiribilduko Ordenantzak aurkezteko asmoa du: testua bere osoan eman gabe, 1722-1723ko Ordenantza Orokorren aurkezpen xume bat egin nahi dizuet hemen, Zuzenbide historiaz ari zaretenok Segurako honen berri ere izan dezazuen[1].

Segurako Udal Artxiboan dauden paperen artean, 1723ko *Ordenantza* hau ez da horrela izendaturiko bakarra; alderantziz, beste hainbat udal arautegi izendatzeko ere "Ordenantza" termino bera erabili izan baitute Artxibo horretan gordetako agiriek[2]. Hala ere, bere bereizgarri deigarriak ditu honek, eta horregatik aukeratu dut hona ekartzeko.

Beste Ordenantza haiek ez bezala, 1723ko hauek "Ordenantza Orokorrak" izan nahi dute, hau da, hiribilduko bizimodua bere izaera osoan arautu nahi dutenak, elkar-bizitzak dituen alde nagusiak, denak batera, araupetuta utziz. Oraingoz Seguran ez da ezagutzen asmo orokor hori duen beste honelakorik, izan ere aurrekoak, edo herritar talde bati zuzenduak ziren (1374: San Andresko Kofradia), edo arazo jakin eta mugatu bati erantzun nahi zioten (Alkatearen ordezkaritzarekiko arauak, 1498; udal funtzionarioen soldatak, 1511).

1723ko Ordenantza Orokor hauen antzekoak ez dira falta Gipuzkoako herrietan; holakoetan, puntuz puntu eman ohi dira arauak, eta zertzelada zehatzez arautu herriko bizimodua eta gobernua. Kongresu honen aurretik ere, adituek behin eta berriz arretaz begiratu dituzte mota honetako Ordenantza Orokorrak, bakoitza bere baitan aztertuz batzutan, eta bestetan, zenbait herritakoak elkarren artean alderatuz[3].

## 1. ORDENANTZAK BIDERATZEN (1722-1723)

Hona dakargun Segurako Ordenantza Orokor hau da, zalantzarik gabe, Seguran ezagutzen dugun Ordenantza-testu zabalen eta landuena: beraren azken idazketa 1722ko urriaren 10an bukatu zen, hain zuzen *Bernardo Joseph de Valenzegui Verasiartu* Alkatetarako hautatu eta egun gutxira. Ordenantza-testuaren sinatzaileak "en la Sala de las Casas del Aiuntamiento" bildu omen ziren,

1. Segurako Udal Artxiboa (=SUA). 1722ko testu onartua: A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 14. Esp.; 1723ko testu berretsia: A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp.

2. Ik., adibidez, argitara emanda edo argitaratzear dauden Erdi Aroko agirietan: DÍEZ DE SALAZAR, 1985: 12. agiria (1335), 14ter (1340), 17 (1348), 35 (1374); DÍEZ DE SALAZAR, 1993: 140. ag (1422); AYERBE IRIBAR, 2006: 266, (1498), 270 (s. XV), 287 (1511), 291. (1513) agiriak. Aipatutako agiri horietan guztietan erabiltzen da, adiera batekin edo besterekin *Ordenantza* hitza.

3. Zilegi izan bekit ikertzaile berrietakoren bat aipatzea: AYERBE IRIBAR, 1982: 257-335; AYERBE IRIBAR, 1986: 91-228; aipa dezadan, gainera, azken ordukoa den eta eskuratu ez dudan Ayerberen beste hau ere: "El gobierno del Valle de Léniz. Sus primeras Ordenanzas Municipales", in: BRSBAP. LXII, 2006. Panorama orokorrago batean jardun dutenak, berriz: MADARIAGA, 1979; DÍEZ DE SALAZAR, 1984; SORIA, 1992; TRUCHUELO, 1998; TRUCHUELO, [1994]. Oro har, Hiribilduetako gobernu-antolamenduaz: GARCÍA FERNÁNDEZ, 2004.

baina ez ziren asko, 18 lagun (Udaleko bertako 7, 10 auzotar eta eskribaua). Erreparatzekoa da halako une seinalatuan eta sinatzaileen artean bost Arrue-tar zeudela eta hiru Balentzegi[4].

Kontzejuan arau-proiektua onartu ondoren, Gorterako bidea eman zitzaion, han Erregeren berrespena izan zezan; hurrengo urteko udal hauteskundeak baino bi egun aurretik, 1723ko irailaren 27an, sinatu zuen Felipe V.ak berrespen-agiria. Beste Balentzegi bat (*Matias Bernardo Valenzegui Urbina,* Santiagoko Zalduna) aukeratu zuten oraingoan ere Alkate, eta berau Udaletxean buru zelarik, 1723ko urriaren 10.ean aldarrikatu ziren Ordenantza hauek herrian[5], Arrizabalaga Eskribaua, Juan Herzilla eta Martín Garikano merioak (agoazilak) lekuko zirela:

> [...] a son de tambor y por la voz de Juan de Apaiztegui, Pregonero de la dcha. Villa, se publicaron, y se dieron a entender en Lengua Bascongada, las Ordenanzas y real confirmación de las fojas antecedentes, en la plaza y Cantones públicos de esta dcha. Villa y puestos acostumbrados.

Hortaz, azpimarra dezagun jendaurreko aldarrikapena euskaraz egin zela, ahozko azalpena behinik behin; baina nahiz eta Gortean eta Udaletxean proiektuko arauak eta prozedura osoko agiriak gaztelaniaz bakarrik idatzita agertzen zaizkigun, Joan Apaiztegia horrek eskuetan euskaraz ere zerbait idatzita eduki beharko zuela pentsa daiteke, herritarrei arauak aditzera modu egokian emateko. Ia beti ohi zenaren arabera, bitasun kontrajarri ezaguna ageri zaigu, kasu honetan ere: herritar askok euskaraz bakarrik daki, eta euskaraz ematen zaio arau berrien albistea, baina administrazio idatziak bere gaztelania bakarrik ezagutzen du paper idatzietarako[6].

Segurako hiribilduaren historian 1723ko Ordenantza hauek herriko elkarbizitza eta gobernuan funtsezko zeregin, arazo eta irizpideak identifikatu nahi dituzte, eta kasu bakoitzean irtenbide arautu onartua eman puntu bakoitzari: erakunde-bizitza politikoa, jarduera ekonomikoa, herriaren hornikuntza eta fiskalitatea, segurtasuna edo zerbitzuak, adibidez.

Ordenantzak ez ziren jaio bulego-lan isolatu batetik; aitzitik, aurreko mende eta belaunetako esperientzia eta eskarmentutik baizik, eta tradizio arautu eta,

4. Bernardo Joseph de Valenzegui y Verasiartu (alkatea), Francisco de Lardizabal (alkateordea), Antonio de Arrue y Juan Bta. Arrizabalaga (zinegotziak: regidores), Joseph Ignacio Gaitan de Aiala (sindikaria: síndico procurador general), Francisco Ignacio de Lapaza eta Zarauz (sindikariordea), Diego Antonio de Arrue Irarraga (diputatua) "que componen el pleno del Aiuntamiento", eta Mathias Bernardo de Valenzegui eta Urbina (Santiagoko Zalduna), Juan Ignacio Arrue, Pedro Joseph Arrue, Francisco Ignacio Arrue, Ignacio Bta. Valenzegui eta Verasiartu, Francisco Thomas Thelleria, Juan Ignacio Astigarraga, Juan Bta. Goicoechea, Ignacio Larraza, Pedro Leceta, "y yo Gerónimo de Arrizabalaga Escribano de S. M. y del Aiuntamiento". SUA A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 4-5. folioak.

5. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 14. Esp. Azkeneko orrietan dagoen Notario-aktan.

6. SUA-ko *Inventario*-an (Andrés et al. 1983) ez da ageri Ordenantzen euskarazko itzulpenik; hala ere ez da ulergarria Pregonariak inolako idazkirik gabe nola aldarrika zitzakeen arauak herritarren aurrean, osorik ezean testu idatzi laburtu bat behintzat erabili gabe.

ustez, *idatzi batetik zetozenak ziren*. Herriko klase gidariak bazekien zer nahi zuen, eta interes handia erakusten du Kontzejuak aurrekari horiek badaudela eta Ordenantzak berorien gain egiten diren proposamena direla erakusten. Irakurri besterik ez dago nolako afana jartzen duten hori baieztatzen[7]:

> [...] siempre se ha governado con el mayor esmero y en lo antiguo (según tradición) con sus ordenanzas y Leies municipales confirmadas por las cathólicas Magestades, allándose la Confirmación en su Archivo, si vien no se save donde pararon las mismas ordenanzas.

Baina arautegi berritua ez da tradizio hutsa, baizik eta eguneko premia eta eskakizunetara begira egokitutako arauak dira bildutakoak, egindako aldakuntzek erakusten dutenaren arabera: esate baterako, Kontzejuaren osaketa aldatuta dago (2. Ord.), eta Notarioen protokoloen eskualdaketak segurtasun hobez eraman nahi dira (46. Ord.).

Iraganaren oroitzapena zaindu nahi hau, gordeta dauden eta gordeko diren agiri eta paperekiko arduratzean ere ageri zaigu: herriak elizako sakristian duen artxiboa gogoratu ondoren (26. Ord.: "archibo que tiene esta Villa en la Sacristía de su Iglesia"), berorren zainketa instituzionala nola eraman behar den arautzen da. Lau giltza daude Artxiboko Kutxa irekitzeko, lau lagun ezberdinen eskuetan (Alkatea, Lehen Zinegotzia, Sindikaria eta Udal Eskribaua), eta kutxa lau "giltzadunen" aurrean bakarrik ireki daiteke; denek ere beren ondasunen bidez erantzun beharko dute gordeta dituzten fondo guztiez, hurrengo Kontzejukideen aurrean.

## 2. SUETATIK KONTZEJUETARA

Hiribildu eta Kontzejuko oinarrizko bizimodu eta bizi-aldeak begiratzen dituzte Ordenantzek: Udaleko botere-ordenamendua, biztanleriaren hornikuntza eta zuzkidura, komuneko ondasunen kudeaketa, jarduera ekonomikoa, merkatal joan-etorriaren kontrol fiskala, eta bigarren mailako garrantzizko zenbait ardura ere aintzakotzat hartzen dute (udaleko lan-soldatak, alardeak, udal zigilua, etab.).

Ez ditu ahaztu nahi su edo sukaldeak *(fogueras)*, herriko bizilagunari nortasun politikoa eman ohi dion eskubide politikoen unitatea baita *sua*, bizilaguna *auzotar* bihurtuz. 39. Ordenantzak bere arreta hortxe jartzen du: suak "etxebizitza eta sukalde guztien araberako multzoa" izango dira, ez gehiago, ez gutxiago, eta beti ere Kontzeju Hertsiak eginda daukan zerga banaketaren araberakoa.

Auzotarrek badituzte herrian beren borondate politikoa azaltzeko tresnak, egin ohi dituzten auzotar bileratan (*ayuntamientos* direlakoetan), hau da, mota

7. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 6. folioa.

ezberdinetako Kontzeju edo Erregimentuetan. Ondo etorriko da Segurako Ordenantzetan Auzotarren Kontzeju horiek zeintzuk diren jakitea[8].

Hiru motatako asanblada politikoak zeuden herrian: Udal Bilera Bereiziak (*Ayuntamientos Particulares*), Auzotarren Bilera Orokorrak (*Ayuntamientos Generales de Vecinos*), eta adin nagusiko Auzotar eta Bizilagunen Bilerak (*Ayuntamientos de Vecinos y Moradores*).

Udal Bilera Bereizia Kontzejukide hautatuek bakarrik osatzen zuten (Alkate, Zinegotzi, etab.), eta bilera-lagunek jakineko ordena batean eseri behar zuten (Alkatea, Lehen Zinegotzia edo Erregidorea hurrena, Bigarren Zinegotzia, etab.), eta bozketarik zenetan ordena horretantxe eman behar zuten botoa[9].

Erabaki berezietan edo munta handiko arazoetan herritarren borondatea Auzotarren Bilera Orokorraren bidez azaldu ohi zen. Bilera-mota hau honela definitu zuen 9. Ordenantzak:

> Otrosí ordenamos y mandamos que quando a esta Villa se le ofrecieren algunas cosas además de las regulares y ordinarias del Ayuntamiento Particular y en las demás ocasiones que les pareciere conveniente al Alcalde y a los demás capitulares deva el Alcalde juntar Ayuntamiento general de todos los vecinos de la Villa para tratar, conferir y resolver en el asumpto que ocurriere y en estos Ayuntamientos se guardará la forma de que el Alcalde y los capitulares se sienten con el orden que queda prevenido en la Ordenanza antecedente y siguiendo a ellos los demás vecinos conforme la calidad y grados de sus personas usando unos con otros las devidas corthesanías, atenciones y si se ofreciere votar se efectuará por el mismo orden de los asientos o personas sin que en ningún casso tenga más fuerza el voto de los capitulares que el de los demás vecinos. Lo que acordare la mayor parte de los individuos deverá llevar efecto y cumplimiento y si quedaren empatados por igual número y faltare algún vezino o vezinos de concurrir se les hará comparecer y que expongan su sentir para la determinación, y no haviendo más vezinos de los que se hallaren presentes o no pudiendo haver promptamente a los que faltaren, se hechará suerte de los dos dictámenes igualmente puestos y el que primero saliere en un carthel prevalezca, sin embargo de quedarles su derecho a salvo a los del sentir contrario para ante la superioridad.

Honela, bada, Auzotarren Bilera Orokorrerako deialdia Udal Bilera Bereizi edo Kontzeju Hertsiaren eskumenean zegoen; baina, Bilera Orokor hori, beregaina da bildu orduko, beti ere bilera-lagunen boto bakoitzari balio berdina aitortzen zaiola. Bozetara egitean, bototan berdinketarik bada, ahalik auzotar gehien ekarriz lortu behar da berdinketa haustea. Auzotarren Bileran hartutako erabakiak guztientzat ere betebeharrekoak dira, Kontzejua barne.

Azkenik, Auzotar eta Bizilagunen Bilera da herritar guztien erabaki-tresna orokorrena, auzotarrak edo sukalde-buruak ez eze bizilagun denak biltzen bai-

8. Beste zenbait herritakoak ere aldera daitezke: Errenteria, Tolosa, Hondarribia, Orio. Ik. TRUCHUELO, 1998: 360-361.

9. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 19-20. folioak.

tzituen bere baitan. Herritar guztiak ukituko zituzten aztergaiak ikusteko eta guztiek erabakiak elkartuta hartzeko bildu ohi zen Auzotar eta Bizilagunen Bilera, hau da, guztientzako garrantzi, presa edo konpromiso pertsonal orokorra zuten gaietarako. Argigarria da, zentzu ezberdinetan, 10. Ordenantzako testua[10]:

> Otrosí ordenamos y mandamos que quando se ofreciere algún negocio que universalmente comprenda asta a los moradores de esta Villa, como es imponer alguna sisa, derrama, levantada de gente para la guerra u otros semejantes, se comboquen (a una con los vezinos) todos los moradores de dentro y fuera de los muros para cuio efecto y que llegue a noticia de todos se le pedirá al Vicario de la Parroquia publique por el púlpito esta convocatoria de vezinos y moradores al tiempo del ofertorio de la misa mayor de un día festibo como siempre se ha acostumbrado, o vien se mandará publicar por el pregonero de la Villa, y estando todos juntos en la Sala del Ayuntamiento se les proponga el asumpto de su concurrencia y con sabiduría de ellos se proceda a lo que más conviniere a esta república y vien común de sus vezinos.

Horrela, bada, zama larriagoa zekarten arazoetan biltzen zen Auzotar eta Bizilagunen Bilera, zerga bereziak ezartzeko edo zeregin militar arriskutsuetarako. Ohar bedi herri-barruko bizilagunak ez ezik kanpoko barreiatuak ere (baserri eta auzo) gogoan hartzen direla. Aztertzen ziren salbuespeneko gai-motengatik, asanblada erabat orokor hauek ezohikoak ziren; baina Auzotar eta Bizilagunen Bilerek argi uzten dute Udal Bilera Bereizia (Hertsia) ahula sentitzen zela holakoetan, beste gabe eta jendearekin kontatu gabe, halako erabaki astunak hartzeko, nolatan espresuki ez zuen aurretik ezagutu eta irabazten herritar ororen edo gehienen borondatea.

Udal Bileretarako (Bereizi nahiz Orokorretarako) deialdia luzatzeko eskubidea Alkatearena zen, baina Kontzejukideek eta Sindikariek eskubidea zuten horrelako Bilerak eskatzeko, eta Alkateak deia egin ezean "erresidentziarako" gai aztergarritzat jotzen zen ezezko hori. Nolanahi ere, Eskribauak egindako "voceto" edo txartel baten bidez helarazi behar zitzaion deialdia auzotarrari, merio edo agoazilaren eskutik, aztergaia, bilera-lekua eta ordua aditzera emanez; larrialdiren batean, posible zen, gainera, beste gabe ahozko deialdia egitea ere (Ord.)[11].

1723ko Ordenantzen arabera, horiek ziren Seguran gobernu-organo kolegiatuak: lehendik zetorren esperientzia politikoaren oihartzuna dira, erreforma-ukituren batekin; baina ez zuten hirurek indar, balio edo egunerokotasun bera XVIII. mendean. Ohiko gobernu politikoa batez ere Kontzeju Hertsitik eramaten zen, eta askoz gutxiago zegoen Bilera Orokorretatik esekita; bestalde, Kontzeju Hertsi horren mendekoak ziren funtzionarioengan zegoen erabakiak egikaritzeko irtenbide praktikoa.

---

10. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 22. folioa.

11. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 23-24.

## 3. KONTZEJU BEREIZIKO KARGUAK

Ordenantza berriaren arabera, Segurako Erregimentu, Udal edo Kontzejua ondoko kargudun politikoek osatzen zuten: Alkate, Alkateorde (*teniente de alcalde*), bi Zinegotzi (*regidores*), Sindikari-prokuradore, Sindikariorde eta Diputatuek, botorik ez zuen Eskribauarekin batera[12]. Ordekoez ikusiko dugunagatik, esan daiteke eskumen osoko bost kidek soilik osatzen zuela Kontzejua (7 eta 8. Ord.)[13]. Izan ere, honelakoek (*tenientes*), halakorik behar izanik ordezkapen-betekizuna zuten bakarrik, 7. Ordenantzak dioenez[14]:

> [...] los Thenientes de Alcalde y Síndico no tienen ejercicio ni intervención en cosa alguna sino por muerte o ausencia de los Propietarios ni voto ni asistencia en los Ayuntamientos Particulares.

Kontzejurako hautagarri izateko, baldintza jakin batzuk ezartzen ziren Ordenantza hauetan[15], hala nola, Foruen araberako kapareak izan behar zuten (*hidalgos*) hautagaiek, irakurri eta idazten jakin[16], etxeren bat eduki harresibarruan, Hiribilduko bizilaguna izan gutxienez hauteskunde-eguna baino sei hilabete lehenagotik, kargu-urtean aurreikusita kanpora joatekorik ez izan. Baina baldintza hertsigarriena ekonomikoa da (*millares* deituarena); gutxieneko baldintza ekonomikoak hauek dira (4. Ord.):

> Otrosí por quanto conviene que las personas que han de mandar y governar la república sean avonadas y tengan hazienda de raíz propia; ordenamos y mandamos que cualquiera que haia de entrar en las elecciones, y correr suerte de elegido, o elector, haia de thener vienes raízes por sí o por su muger dentro de esta Villa, o su jurisdicción, a lo menos una casa con su huerta, y haia de constar de su certidumbre a los del Gobierno, pero si se justificare que alguno intente entrar en vecindad y elecciones con ventas o donaciones simuladas no sea admitido.

Hauteskunde-prozedura eta karguaz jabetze-moduak arau ezberdinetan biltzen dira (6 eta 8. Ord.). Aukeraketarena honela deskribatzen du testuak[17]:

> El día del señor San Miguel, veinteynuebe de Septiembre de cada año, se juntarán todos los vezinos al paraje y ora que se previene en la Ordenanza primera ["en la sala de las casas concegiles de esta Villa, o en la sala del hospital de San Juan que está contigua a la Iglesia Parroquial", dio], y estando así juntos se dará

12. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 9 eta 20 folioak (2. Ord. eta 8. Ord.: "en caso alguno tenga voto el Escribano"). Lehenagotik Kontzejua ondoko hauekin osatzen zen: Alkatea, Alkateordea, bi Zinegotzi (regidores), Sindikaria eta Sindikariordea, hiru Diputatu eta Eskribaua (=hamar lagun). Aipatutako beste lau herrietakoa: TRUCHUELO 1998: 359-360.

13. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 18, 20. folioak.

14. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 18-19. folioak.

15. TRUCHUELO 1998: 366-370.

16. Irakurri eta idaztearen beharrrezkotasunak, Gipuzkoako Foruak zioena Egaña-ren *Instituciones* obran dago (255-256). Ik., gainera, TRUCHUELO, 1998: 368-369, Gipuzkoako Udaletan zein politika jarraitu zen jakiteko.

17. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 14-15. folioak. TRUCHUELO 1998: 362,-364.

principio a la elección entregándole el Alcalde la vara al que a sido su theniente y en su falta al segundo theniente o tercer Alcalde, y este reciba juramento en forma sobre la Cruz de la dicha vara a los cinco capitulares de que visarán del oficio de electores según Dios y sus conciencias, y harán la elección sin pasión ni interés ni rencor en las personas más condignas, ydoneas y de mayor inteligencia que puedan governar la República con la más cristiana justificación, celo y aplicación al vien común de esta Villa, y hecho así el juramento se apartarán a parajes distintos para hacer la elección adonde tendrán tinteros y carteles en blanco y cada uno escrivirá en uno el nombre del vezino que quisiere sea Alcalde y doblados los cinco carteles lo hirá tomando un Alguacil, y los entrará en un cántaro o jarra de plata y serán revueltos por el Escribano o su theniente y luego arrojará públicamente al suelo los cinco carteles y un niño que será llamado se los hirá dando a la mano al Escribano, y este volviendo a doblarlos con igualdad los entrará en dcho. cántaro y revolviéndolos otra vez mandará el Alcalde se saquen y el niño tomará uno de los carteles del cántaro y entregará al Escribano quien en voz alta leerá el nombre que está escrito y el que así saliere primero será Alcalde de la nueba elección a quien le entregará dicho cartel, y los demás que salieren...

Prozedura bera errepikatu behar zen kargu bakoitzerako. Karguaz jabetzeko hautatuek elizara joan behar zuten, kargudun ohiekin eta auzotarrekin, eta elizan zin egin behar zuten zera (6. Ord.)[18]:

[que] guardarán y administrarán justicia rectamente en el ejercicio del empleo de cada uno, y jurado así le entregará la vara el Alcalde que acaba de serlo al que lo ha de ser.

Ekitaldiak, beraz, honelako eliz berronespena izaten zuen, baina tartean elizgizonik ez zela (Ordenantzetan, behintzat, ez da agiri). Ez da harritzekoa ere, zeren eta, Parrokiako Zaingoa Udalak zuenez, Segurako Kontzejua Jasokundeko Parrokian bere etxean sentitzen zen.

Alkatearen kargu-jabetze herritarra egun berean egiten zen, San Migel egunez, Bezperen aurretik eta herriko kaleetan bere errito arautua jarraikiz[19]:

A la tarde, antes de Vísperas del mismo día de San Miguel, tomará el Alcalde nuebo posesión de la Villa como siempre se ha acostumbrado por testimonio del Escrivano de Ayuntamiento dando una buelta por las calles, y tocando con su mano las puertas de la Villa en señal de dcha. posesión en la qual le asistirán y acompañarán por corthesanía todos los capitulares y vezinos.

Kontzejua elkargo-organoa zen, gobernurako talde bezala jokatu behar zuena, baina zinezko aginte erabakigarria Alkatearengan zegoen, beraren eskuetan baitzeuden botere betearazlea bezala epaile-boterea eta aginte militarra, eta berari zegokion zenbait betekizun beste Kontzejukideei lagatzea, batzuetan aldez aurretik Ordenantzek ziotenaren arabera, edo beharrezko zereginetara auzotarren artetik deiturikoei ordezkaritzak eta ematea (pielak, zinpekoak, prokuradoreak).

18. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 18. folioa.

19. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 18. folioa.

Ordenantzetan Zinegotziei (*regidores*) zenbait egiteko zehatz ematen zaie, herrian behar den hornikuntzaren kontrola eraman dezaten; kargudun bakoitzari bere eskumenak ematen zaizkio, eta udal alondegiaz berori arreta ernez begiratzea ere (16. Ord)[20]:

> Por quanto comviene discernir la incumbencia de cada oficio de los capitulares por que no se confundan unos con otros en la Administración de Justicia, ordenamos y mandamos que los dos Regidores y cada uno de ellos asistan por semanas o por meses (como mejor les pareciere) a la Alóndiga de esta Villa en los tres días de su mercado de cada semana que son los lunes, miércoles y viernes, y tengan cuidado no se altere el precio del trigo atendiendo a su bondad, género y calidad, y si entre los trajineros...

Luzeagoa da testu hau, eta berriz ere itzuli beharko dugu horretara, baina balio digu hemen Zinegotzien ardurak zeintzuk ziren jakin eta haiek eguneroko bizitzan izan zezaketen lekua ezagutzeko, izan ere berauen zeregina baitzen prezioen ikuskaritza eta lehen beharretako janari-edarien kalitatea begiratzea, hain zuzen halako produktuen eskuratzea gaur baino zailagoa baitzen garai haietan (garraio-zailtasunak, uzta galduak, gerrak).

Sindikari Orokorrak osatzen zuen salerosketa-sarearekiko kontrol-sistema: honi zegokion tabernetan ardo, ozpin eta pattarren prezioak beren neurrira ekartzea, edo Hiribildura zetorren arrain freskoarena: "esta facultad la tenga el Síndico privativamente, sin intervención de otra persona alguna, y en ausencia suya su Theniente". Baina horrek ez du esan nahi merkatu librearen arauak erabat hautsi nahi zirenik: alderantziz, kontrol-gehiegikeria ezagunak saihestu egin nahi ditu Ordenantzak, jakietan, barbantzu, mahats-pasa, piku, xaboi eta abarretan Sindikariaren lanari, zegozkion mugak ezarriz (20. Ord.)[21].

## 4. KARGUDUNEN ERANTZUKIZUNA: *RESIDENCIA*

Jarduera-urtea burutzean (samigeletatik samigeletara), egindakoaren kontuematea ezartzen zitzaien kargudunei: *residencia* edo erresidentzi epaia deitzen zitzaion horri[22]. Eta egiteko hori Ordenantzetako 14. artikuluaren bidez arautu zen Seguran[23]:

> Otrosí ordenamos y mandamos que el Alcalde y demás cargos havientes de esta Villa, acabando el año estén en Residencia treinta días y que el Alcalde subcesor haga publicar de la iglesia el primer día festivo después del de San Miguel al tiempo del ofertorio de la Misa popular, pidiéndoselo al Vicario de la Parroquial, y poniendo edictos en el cantón público de esta Villa para que llegue a noticia de todos, cómo los del gobierno antecedente se hallan en Residencia y que si alguno

---

20. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 28-30. folioak.

21. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 31-31. folioak.

22. TRUCHUELO, 1998: 365.

23. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 33-35. folioak.

tuviere causas justas contra ellos por no haver cumplido vien con sus oficios se queje ante dcho. Alcalde que se le administrará justicia dentro de los treinta días que correrán desde el día de la publicación, y que no querellándose dentro de este término no será oydo en adelante; y así vien, en el mismo tiempo entre de oficio el Alcalde a entender en dcha. Residencia contra los referidos capitulares antecedentes sobre lo obrado, y ejecutado en sus cargos, y la administración de los haveres de esta Villa, y su justa distribución, y si hallare algunos daños o perjuicios contra la Villa, haga causa sobre ello, y heche las condenaciones correspondientes a las culpas, y aquellas se paguen sin embargo de apelación dentro de tercero día de la notificación, y para su cobranza se pase a la execución de vienes de los culpados, así muebles como raíces, y se secuestren, y se vendan, y de su valor quede pagada, y satisfecha enteramente la Villa, y dejándola indemne; si los multados se sintieren agraviados de lo juzgado contra ellos, y quisieren apelar se les conceda la apelación, haviendo pagado y no de otra manera, porque no siendo de esta forma, nunca quedaría la Villa vien satisfecha de los daños que sus oficiales le hicieren en la administración de sus rentas; y si en la instancia de la apelación fueren absueltos por Juez competente de las condiciones, condenaciones, y revocadas las sentencias dadas contra ellos, se les buelba, y restituia lo que pagaron, y si hubiere condenación de costas contra la Villa, las pague el Alcalde que dio las sentencias, si procedió injustamente, o con ligereza en la causa, y no de otra manera.

Ikusten denez, Hiribilduko ondasun eta eskubideen defentsa zarratua dago hor: edozein auzotarrek aurkez ditzake bere kexuak eta ustelkeria eta nahierakerien kontrako salakuntzak. Alkate berriaren eskuetara zihoan auzia, eta salakizunen inguruko argibideak bilatu eta epaia eman behar zuen, salatzaile/salatuaren alde ala kontra, betiere Kontzejukide ohien erantzukizunak argituz. Alkatearen epaiak berehalako ondorioak zituen, eta ezarritako zigorra egikaritu egin behar zen. Epai horren aurka bazegoen gora jotzerik, baina epai berria Hiribilduaren kontrakoa izanez gero, auzia abiarazi zuen Alkate horrek ordaindu behar zituen judizio-kostuak, arinkeriaz jokatu zuela ikusten bazen behinik behin.

Auzotarrek, bada, teorian bederen, erresidentzia honetan zuten Kontzejuaren aurrean ekimen eta ekinbide politikorako aukera, gobernu-aldi bakoitza bukatzean eskura zutena. Erresidentzia hau ez zen iristen zinezko kritika politikoa izatera, politika hori aldaraziko zuena alegia, baina delitu izaera zuten jarduerak epaitu eta interes partikularren demasiei mugak jartzeko balio zezakeen.

Hona iristean, galdetzekoa da erresidentziaren honek zenbateraino lagundu zituen herriko politikaren gardentasuna, herriaren interesak eta agintari politikoen garbitasuna. Herrian *elite* batek agindu zuela nahikoa argi dago[24], eta familia gutxi haien presentzia errepikatua susmagarri gertatzen zaio aztertzaileari; bestalde, badakigu "erresidentziak" bere indarra galdu zuela XVIII.aren hondarretan. Zer gertatu ote zen Seguran? Oraingoz, azterketa berrietarako utzi beharko dugu erantzuna.

24. INTXAUSTI, 2006a: "El gobierno de vecinos y almas" kapitulua.

## 5. UDAL ENPLEGATUAK

Udaleko bizitza ofiziala hautatu haien eskuetan baldin bazegoen, Erakundeak zuen hainbat betebehar besteren eskuetan utzi behar izaten ziren[25]. Alde horretatik, gogoratzekoak dira Segurako udal zerbitzu zenbaiten ardura nola banatzen zen.

Bi merio edo agoazil zeuden herrian, Hiribilduko errenten diruzaina, elizako maiordomoa, era berean San Joan eta Sta. Madalena Ospitaleetako maiordomo bana, zerga biltzailea, Bulda arduraduna, eta Udal Zainpeko Ermita bakoitzak bere maiordomoa zuen, gainera[26].

Udaleko aukeratu politikoek eta ondoko funtzionarioek talde polita osatzen zuten, hortaz: bost politikari eta Eskribautza eta Zerbitzuetan hamar arduradun. Eskribaua zen ongien ordaindua (400 erreal), ondoren datoz maiordomo diruzaina (220 erreal), agoazilak (200 erreal), alkabala-biltzailea (100 erreal), bulda-biltzailea (100 erreal), eta pregonaria eta aldi berean danborrero izanik harategietako kontrola zeramana (312 erreal).

Udaletxeko soldatadunen artean daude, gainera, sakristaua 60 errealekin (kanpai-jolea ere bazen), erloju-zainak 100 erreal hartzen zituen (Udalak eta Elizak erdibana emanak). Eliza eta Ospitaleetako maiordomoak Erakunde haien kontura bizi ziren, bakoitzak urtean 10 dukateko ordaina zuela.

Soldata hauek guztiak aldagarriak ziren, baina hobekuntzak beharrezko eta egingarritzat aurreikusi arren, unean uneko behar eta iritzien mende zeuden, inondik ere: "para su deliberación, se junten todos los vecinos, y unánimes y conformes, sin contradicción alguna acuerden lo que más conviene para el bien atendiendo al mayor alivio de esta Villa" (50. Ord.).

## 6. UDALAREN GOBERNU ETA KUDEAKETA

Kargudun haiek eta funtzionario-enplegatu hauek Hiribilduaren gobernua segurtatu behar dute eta Kontzejuak bere ardurapean dituen eremu guztien kudeaketa bideratu, zeren eta, gainera, orduko Udalak bere manupean zituen eskuduntzak gaurkoak baino zabalagoak baitziren: Hiribildua "autogobernu beregain" batez jantzia dago, gaur egun udalarenak ez diren botere-eremuak dituela.

### 6.1. Udal barrutia eta lurraldea

"Betidaniko usadioari jarraiki", Udalak bere horretan zaindu behar ditu udal mugaldeak, eta horretarako Alkate eta Kontzejukideek "urtero, hutsik egin gabe, ikustatu beharko dituzte Hiribilduaren mugak, betiere mendizainek lagunduta,

25. TRUCHUELO, 1998: 360, 376-379.

26. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 8-9. folioak.

mugarrien lekuak ikusi eta beharko luketen puntuetan dauden ala ez ziurtatzeko" (29. Ord.); zeregin honetan mugarriak ez ezik herri-mendiak ere begiratu beharko dituzte[27].

Udal osotasunarekiko eta lurralde-ondarearekiko kezka hau, geografikoki ez da horra mugatzen, baizik eta espresuki Sandratiko Portua eta Urtsuarango bailara ere kezka horren barruan daude Ordenantzetan (30-31. Ord.): pentsa daitekeenez, Partzuegoko (*Partzoneriako*) lurrak dira horiek. Sandratiko kasuan, gainera, badago xehetasun bereziren bat, aintzakotzat hartzekoa dena, Kontzejukideek zein ardura duten adieraztean zera esaten baita (30. Ord.):

> [...] pongan arancel a los mesoneros que avitan en dicho Puerto y manden poner la orca en el parage que se conserva y hagan los demás actos de posesión.

Urtsuaran-goari dagozkionetan, baserri-lurretako maizterren eta Hiribildu jabearen arteko (Segura eta Idiazabal) harremanak ongi araututa eraman nahi ditu Ordenantzak eta horretarako bederatzi-urtero adostu beharko dira harreman horien baldintzak. Zergatik, ordea? Batez ere, kontrolik gabeko lur-urraketa berriak (*rozaduras*) eragotzi nahi zirelako, baserritarrek baserri-produkziorako Hiribilduen lurrak hartuz joateko arriskua ikusirik baitzegoen (31. Ord.)[28].

Herri-mendiak Hiribilduaren funtsezko ondarea ziren, eta ezin zitezkeen utzikeriaz laga; lurron ustiaketa pribatua jasan ezina zen, eta arazoak kontuz araututa egon behar zuen, inondik ere. Usadioek eta tradizioak asko zekiten zera honetan, eta bazegoen arau bat, bere xumean, Kontzejuaren eta herri-lurren pisu ekonomiko eta soziala azpimarratzen duena, herriko sendiek ere interes hurbila baitzuten herriaren lur horiekiko[29]:

> Otrosí por quanto en los propios campos y términos de la Villa suelen hacer los moradores diferentes rozaduras con licencia de la Villa, pagando un tanto por los años que rozan, y porque no es fácil poner en esto coto fijo justificado porque unas tierras son más pingües que otras y algunas estériles y unos parajes mejores que otros, ordenamos y mandamos que de aquí en adelante los que quisieren hacer rozaduras pidan licencia a los del Gobierno para que ellos señalen lo que hubieren de pagar por fanega de sembradía atendiendo a la calidad y parage de la tierra, y su procedido [=producto] sea para plantíos de los términos de la Villa, y los que rozaren sin licencia, incurran en pena de dos mil maravedís, y demás se les quiten los setos y se les embarace el sembrar, y estas condenaciones sirvan así mismo para dichos plantíos.

Herritar banakoek herri-mendi eta lurrak berariaz eta kontrolik gabe hartzea nahikoa maiz gertatu ohi zen, nonbait, eta 1723ko Ordenantzek horrelako abusuei bidea moztu nahi izan zieten, iraganeko historia gogoratzean (*de aquí en adelante*...), eta urraketa berrietarako udal baimena beharko zela agindu zuten,

27. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 38-39. folioak. Truchuelo 1998: 380.

28. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 40-42. folioak.

29. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 42-43. folioak.

errentamendua bidezko baldintzatan eman behar zela, betiere herri-lurrak pribatizatu gabe.

Kontzejua arduratsu agertu ohi zen mendi komunak zaintzen, osorik nahiz beste inorekin zituenak begiratzen, lur eta bazka, baso eta abereak gordetzen. Izan ere, Partzonerietan, Hiribilduak bazituen larre eta pentzeak mendiko azienda librearentzat, Segurako auzotarren azienda zenarentzat. Kontzejuak halako behapen ardura eramaten zuen abere haien gain, eta horretarako *prendarías* zeritzenak egiten zituen Udalak, horretan egin behar zen lana abere-jabeek ordainduz (*calumnia* zeritzan ordaina, alegia) (42. Ord.). Salbuespen bezala, ahuntzak ezin zitezkeen utzi Hiribilduaren beraren lurretan, "nahiz eta beroriek Hiribildukoak bertakoak edo auzotarrak izan, izan ere zuhaitz-mota guztietan ere kalte aski egiten baitute", dio Ordenantzak (43-44. Ord.)[30].

## 6.2. Ekonomiaren udal kontrola

Herri-lurrekiko ardura hori ez da ekonomiaz Udalak duen kezka bakarra, noski, eta herriaren hornikuntza eta merkatal harremanak ere Udalaren politika ekonomikoan munta handiko kapituluak dira. Batetik, hornikuntzak herriko oinarrizko premiei erantzun egokia eman behar die, eta merkatalgoak sarrera fiskal garbiak zekartzan Kontzejura. Horretarako guztirako, Udalak bere tresnak zituen.

Ohizko fiskalitatean pisu eta neurrien definizioa eta kontrola oinarrizko lanabesak ziren Udalarentzat; era bertsuan, salgai zeuden produktuei ezartzen zitzaizkien arantzelak eta salneurriak. Herri-barrurako Portaleak, Alondegia, Azokak, Tabernak... guztietan behatzen ziren zergapekoak ziren produktuak, kontrolatu eta zegozkien zergak jarriz.

Tokiko premietarako datozen salgaiak Alondegian dute beren erakunde fiskal naturala, batez ere jakineko salmenta-leku eta unerik ez duten haiek (hau da, merkatu edo saltoki jakinik ez dutenak). Horregatik, Alondegiaren bizitza araututurik dago (37. Ord.):

> Otrosí ordenamos y mandamos que todas las personas que vinieren de fuera parte a vender en esta Villa, así en los mercados públicos como en otros días vino, trigo, cevada, abena, centeno, maíz, mijo y otras cualquiera, ceberas y legumbres como [?], pasas, higos, garvanzos y otras cosas sean obligados de llevar a descargar a la Alhóndiga de esta Villa que para ello está diputada, y en ella se pese y venda todo, y si algunos vezinos y moradores, o arrieros de esta Villa que trageren de fuera parte trigo u otros granos para venderlos, aunque descarguen en sus casas no puedan vender en ellas sino en dcha. Alhóndiga, y haviendo algún inconveniente dé quenta al Ahondiguero para que cobre sus derechos y el que incurriere contra esta ordenanza caiga en pena de un ducado por cada vez, aplicado por mitad para el dicho Alhondiguero y el denunciador, y que so la misma pena no vendan a más crecido precio del que vendieren los trazineros extraños.

30. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 52-53. folioak.

Hau dena Alkateak Kontzejukideekin batera urtero finkatu ohi zituen arantzelen arabera egin behar zen, Alondegi-zainak, bere aldetik, indarrean zeuden pisu eta neurriak zaintzen zituen bitartean (36. Ord.). Dena den, Zinegotzien eginbeharra zen pisuen eta neurrien jatortasuna ikuskatzea, 19. Ordenatzak dioenez[31]:

> Otrosí ordenamos y mandamos que los referidos Regidores, y cualquiera de ellos, las veces que les pareciere, y a lo menos cada mes, visiten las medidas del aceyte de comer y de la grasa, y los pesos del pescado y carne, cotejándolos con los de esta Villa, y si no se hallaren cavales y con la marca de ella, los multen hasta dos ducados, y de ay abajo lo que les pareciere.

Okela (23. ordenantza du honek berea), arrain eta olioarekin batera, ogia zen arretaz begiratzen zena: bere gorabeherak izan zitzakeen honek salneurrian, baina beti gariarenaren arabera, izan ere Zinegotziek "arreglándose a él pongan el [precio] que corresponde a la libra de pan de las panaderas, atendiendo al bien común sin perjuicio de terceros", dio arauak (18. Ord.). Merkatuaren askatasuna erlatiboa zen, hortaz[32]. Bestalde, ogiaren kantitate-kalitateak ere udal administrazioak zorroztasunez arautu zituen, eta harrigarria gerta daiteke guretzat horretan halako arta ikustea (17. Ord.)[33]:

> Otrosí ordenamos y mandamos que los dichos regidores devan tener y tengan o cada uno de ellos por semanas el cuidado de pesar el pan cocido a las panaderas si le amazan de buena calidad, florido, vien cozido y no hallándolo assí, o haviendo falta o no siendo de peso las puedan multar asta en doze reales por cada vez y de ellos abajo a su discreción y no se les permita que el pan que no estubiere bien cozido se venda, sino que hechos pedazos se les buelta a las partes quitando los que les pareciere para los pobres del Hospital u otros necesitados.

Kasik esan daiteke, garaiko kontrol-arau zorrotz haiek, baliabide tekniko eskasekin, gaurko kontsumo-arauak jo eta pasatzen zituztela... Eta ez zen hori janarietan bakarrik. Edariak ere ongi zaintzen zituen Ordenantzak, eta zehazkiago sagardoarekikoak jakitekoak dira; sagardoaren merkatuko gorabeherak ez ezik ekoizpen-legeak ere zaindu zituen arautegiak, horretan historiaz ere zenbait ohar eginez (33. Ord.)[34]:

> Otrosí para prozeder en el modo de hacer y vender la sidra de esta Villa se previene que en lo antiguo havía muchos y crecidos manzanales y se recogía copiosa cosecha de manzana y se hacía la sidra pura, pero con el transcurso del tiempo se han perdido muchos de los manzanales, otros se han hecho heredades sembradías de calidad que presentemente se recoge de este fruto sino una corta cantidad que si se hubiese de beneficiar pura la sidra no alcanzaría al propio veverage de los herederos y se privaría la gente común de su avasto, y aunque esta

31. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 30-31. folioak.

32. TRUCHUELO: 380-382.

33. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 30. folioa.

34. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 43-45. folioak

M. N. y M. L. Provincia de Guipuzcoa por una ordenanza suia título veinte y uno, cap°. primero prohibe las sidras aguadas, motivando sea grande el número de los manzanales que había en todas las Villas y lugares de esta Provincia, y que había suficiente avasto, haciéndola pura, sin mezcla de agua que la desvirtuase, pero aunque en aquellos tiempos sería conveniente providencia, se ha hecho ya impracticable en esta Villa, y en otras muchas que han usado de su remedio; por tanto ordenamos y mandamos que los vezinos y herederos de esta Villa puedan hacer sus sidras para mayor bien y alivio del común, para cuio efecto mandamos que el agua que le hecharen sea una herrada de medida a un canasto de manzana también de medida y no más para que así tenga bastante fuerza y substancia la sidra y que cualquiera que propasare de esta medida incurra en la pena pecuniaria en que le condenaren el Alcalde y demás capitulares de la Villa, para cuia averiguación recivirá juramento el Alcalde a la persona que entendiere en el beneficio de dchas. sidras en los lagares, o al embasarlas a donde se hiciere la mezcla después que se hayan acavado de encubar todas las del lugar, o quando mejor le pareciere al dcho. Alcalde.

Horra, bada, bi datu jakingarri: Probintzia eta Hiribilduko sagasti ugariak gutxitu egin dira, lugintzako beste zenbait ekoizpenen mesedetan; ondorioz, sagardo-ekoizpenak behera egin du (nahiz eta berau den, batik bat, Euskal Herriko Kantauri-aldeko edaria). Egoerari aurre egiteko, arau berrituak eman behar dira, sagardo urez "onduak" legeztatuz eta ondorioz edariaren kalitatea kaskartuz.

Garaiko edarien artean, sagardoaren garrantzi sozial eta ekonomikoa handia zen XVIII. mendeko lehen hamarkada haietan. Horregatik, sagardoaren ekoizpena ez eze salmenta ere arautu egin behar izan zuen Hiribilduak, produktuarentzat bezala tokiko ekoizleentzat arau babesleak jarriz (34. Ord.):

Otrosí para que no haya dudas ni cuestiones sobre la venta de las sidras y su preferencia, ordenamos y mandamos que todos los años de agosto que hubiere cubas de sidras que vender, luego que se haian veneficiado, y embasado todas, se junten el Alcalde y demás capitulares en la sala del Ayuntamiento y convoquen a todos los vezinos que tuvieren sidra que vender, y cada uno declare qué cuba o cubas ha hecho, y con qué manzana, si de la cosecha propia, o de comprada, y si la ha comprado del dezmado de esta Villa o de fuera parte y se hagan tantos carteles quantas cubas hubiere y se heche suerte, y conforme fueren saliendo los carteles, por el mismo orden se vendan las cubas una por cada vez, y acavándose aquélla la otra que la siguiere por su turno advirtiendo que en esta suerte han de entrar las sidras de cosecha propia de los herederos aora sea del dezmado de esta Villa, o de las circunvecinas donde tuvieren hacienda propia de manzanales, porque éstos deven tener antelación a los que compran la manzana agena fuera de este dezmado y a todas la sidra de la primicia, los quales seguirán segunda suerte y venderán por el mismo orden después de haverse vendido la cosecha propia de los de esta Villa, y para comprender en esta segunda suerte, vastará tener la cuba parte de manzana comprada fuera, aunque contenga también porción de este dezmado, porque en la primera suerte han de entrar las sidras líquidas de los vezinos que la veneficien de los manzanales de su hacienda y el que contraviniere esta ordenanza sea multado al arbitrio de los del gobierno, pero vien permitimos que los vezinos puedan entre sí trocar las suertes de vender antes o después, si se compusieren por su conveniencia, sin incurrir en pena alguna, así vien se previene

que si acaeciere el que por algún accidente peligrase alguna cuba de sidra por rotura, saltarse algún arco o cello, u otro acaso represente el peligro al Alcalde y demás capitulares de esta Villa y ellos manden reconocer el riesgo de dicha cuba a quien lo entienda, y hagan declararle debajo de juramento si se puede reparar, y pudiéndose, se mande a costa del dueño ejecutar el reparo para que con semejantes pretextos no se intente el que ninguno venda fuera del turno de la suerte; pero si se justificase sea irreparable el peligro de derramarse, en este caso mandarán los del Gobierno el que se venda dcha. cuba acavada la que a la sazón se tuviere de venta, aunque su turno fuese posterior, para que por este medio se atienda a evitar los daños que pudieran seguirse inculpablemente, y para ponerse de venta las cubas, deverán los dueños en llegando su suerte llevar muestra de la sidra al Alcalde para que le ponga el precio según mereciere su vondad, y en el que así le pusiere se venda; pero permitimos que si el dueño voluntariamente quisiera vajar el precio por la brevedad de la venta o por otro fin, a conveniencia, lo pueda hacer sin incurrir en pena por la que se sigue al común, pero si se atreviese a levantar dcho. precio pública u ocultamente, sea castigado a la disposición del Alcalde que dio el precio.

Honela, bada, alde batetik produkziorako eta beronen kalitaterako, eta bestetik, salmenta-lehentasunerako ezarrita geratzen dira neurriak Ordenantza hauetan, Alkateak eta beronek egokitzat jotzen dituen teknikariak arloan jokozain direla. Sagardoa udal kontrolpean geratzen da, beraz, bere kalitate eta salneurrietan, udal babesletza ezarriz. Hori nahi dute Ordenantzek.

Gisa berean, Kontzejuak bere eskuetan eduki nahi du aleen eta laboreen merkatalgoa, Alondegitik kanpo egin daitezkeen berorien salmentak saihestuta, eta haietako batzuen kontrola zorrozkiago eramanez (38. Ord.)[35]:

Otrosí ordenamos y mandamos que ninguna persona de cualquiera calidad y condición se atreva a salir fuera de las puertas de esta Villa a los caminos a comprar ni concertar para sí ni para otro trigo, zevada, aba ni otros granos asta que vengan los trágineros a la Alhóndiga ni dentro de ella hazer ajustes de sacar a otros parajes privados por cargas para en ellos concertar y medir por las malas consecuencias que se seguirían de este deshorden así alterándose el precio como perjudicando los derechos de la Alhóndiga y la livertad común, y los que incurrieren pierdan lo que compraren y más paguen mil maravedís aplicados para la Cámara de S. M., Juez y Denunciador por tercias partes.

Herritarren bizimodua eratu eta elkarbizitzarako egokitu nahi zuten erregela hauetan, badaude bi eremu elkar-osagarriak, Hiribilduko eta auzotar bakoitzaren oraingo eta geroko segurtasuna zaindu nahi dutenak: fedezko bizitza eta segurtasun armatua.

35. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 48-49. folioak.

## 7. SEGURTASUNEN BILA: ELIZ BIZITZA ETA ALARDEAK

Segurako eliz bizitzak, edo nahiago bada, bertoko kristauarteak historia jakin bat du, bere ezaugarri propioekin: Parrokiaren Udal Zaingoa, herri-barruko eliza handia, erlijioso-etxeak, auzo eta alderrietako parrokiak, ermitak, kofradiak, ongileak eta abar[36].

Eliz bizitzan oso engaiatuta zegoen erakundea zen halabeharrez Kontzejua, eta horretan ez batere arrotza; herriko Udal Kontzejuko artxiboak argi uzten du hori. Hala ere, Ordenantza hauek Kontzejuak zaindu ohi zituen deboziozko jarduera batzuez ari dira bakarrik: XVII-XVIII. mendeetan hain hedatua zegoen Sortzez Garbiaren debozio eta kanpainekin gogoratzen da testua, eta gero, Kontzejuaren ardurapean zeuden eta Udalak ofizialki parte hartzen zuen elizkizunak aipatzen ditu (San Joan, abuztuko Andre Mari, Abendu eta Garizumako predikuak, Aste Santuko Hirurrena); azkenik, egiteko pertsonal bat ere jasotzen du: predikariak etxean hartu eta ordaintzea dagokio Alkateari (15. Ord.).

Jasokundeko Parrokiaren Zaingoari zegozkion funtsezko zereginak baztertu gabe, horiek ziren Ordenantzatan eliza bidez herritarren arimen osasun eta salbamena segurtatzeko Udalak bere gain hartzen zituen eginbeharrak. Oso bestelakoak ziren, noski, segurtasun zibil eta armatuari zegozkienak.

Arma bidezko segurtasunean, garai haietako Udalen erantzukizunak gaur egungoenak baino zabalagoak ziren, zeregin hau betidanik antolatuta baitzegoen Hiribilduetan, eta hain zuzen segurtasun-gogo horri erantzuten baitzion Hiribilduen sorrerak berak ere, harresi, dorre eta abarrekin[37]. Armaz ere bakea segurtatu beharrak, ordea, antolamendu arautua eskatzen zuen, eta 1723ko Ordenantzek ez zuten baztertu oinarrizko aurreikuspen hori, horrela legeria zahar bati segida emanez, gainera. Eta gogoan hartzekoa da nola arma bidezko defentsa hau Hiribilduen eta alderrien arteko harremanetan arazo bilakatu zen[38].

1516an Legazpi agertu zen alardeetarako Hiriburuko herrigunera joan beharraren aurka, eta XVI. mendean zehar indartuz joan zen iritzi hori Gipuzkoako alderri eta auzoetan: ez zituzten onartzen auzotik kanpo eta urrun egin behar omen ziren arma-ariketa haiek. Horrela gertatu zen Tolosa, Ordizia eta Hondarribiaren eta beraien alderrien artean[39].

Seguraren kasuan ere hala izan zen, eta esperientzia historiko baten ondorioz ere Kontzejuak aintzakotzat hartu zuen 1723ko Ordenantzetan kontu militar

---

36. Ik. INTXAUSTI, 2003: 309-352 ("Segurako eliz erakundeen eta kristauartearen historiaz"). Liburu berean ikus daitezke, gainera, herriko ermiten historiak ere, E. SORAZU, (353-360) eta AGIRRE SORONDO-ren lumatik (361-372).

37. TRUCHUELO, 1998: 371-372.

38. Ikus, adibidez, Andoian-go alardeen kasua: AYERBE/DÍEZ, 1996: 157-161, 579-581, 630-634.

39. Ikus TRUCHUELO, in: INTXAUSTI, 2003: 161. SUA. C Sek., 5. Neg., I. Ser., 1. Lib., 38. Esp.

hau. Azken buruan, Erregimen Zaharreko Udalen eta Probintziaren botere-autonomiaren agerpena zen erantzukizun hau ere[40].

Alderdi auzotartuak Seguratik jaregin ondoren ere (1608, 1615), Segurak ezin zuen ahaztu segurtasun armatuaren hau, eta, erakundeenaz gain, herriko bizilagunen gain zegoen armatan prestatuta egotea. Horretarako ziren, hain zuzen, alardeak eta Ordenantzek honela arautu zuten ariketa armatu hauena (41. Ord.)[41]:

> Otrosí, por quanto conviene el exercicio de las armas en los hombres para que se hallen diestros y capaces para la guerra en qualquier ocasión de servicio de S. M. en cuio sacrificio se consigue la honra más apreciable de la nobleza, ordenamos y mandamos que todos los años una vez, el día que más conveniente les pareciese a los del Govierno, manden juntar a todos los vezinos y moradores capaces de tomar armas en las Casas del Concejo a toque de tambor y se forme un regimiento de todos ellos con sus espadas, fuciles y municiones, y formados marchen dando buelta por todas las calles a la Plaza guiados del Alcalde con el esponton [=lanza] del capitán, en el centro el Síndico con la vandera y en la retoguardia el Regidor primero con su espontón de theniente y allí puestos en orden de batallón harán el exercicio de las armas a voz de un ayudante que nombrará la Villa, y acabado volverán con el mismo orden militar a las mismas Casas Concejles a arrimar [=guardar] las armas con su tambor y pífano.

*Espontón* hori eta fusila ziren auzotar eta herritarren arma nagusiak (esan dezagun *espontón*-a bihotz formako punta zuen lantza bat zela, garaiko infanteriak erabili ohi zutena). Probintzian eta herri-mailan gerra etor zitekeen zerbait zen, XVIII.eko lehen hamarkadetan bezala hondarrekoetan agertu zena.

Dena den, “betidaniko usadioaren arabera”, herritarrek bazekiten, gerra etorriz gero eta borondatezkorik ezean, “gazte ezkongabeei” helduko zitzaiela, eta Probintziako kasu berezietan “desde los dieciocho años hasta los sessenta” gizonezko guztiak deituak izan zitezkeela, Ordenantzak dioen bezala. Herrian bertakoek “konpainia osoa” osatzen bazuten, Hiribilduak Bilera Orokorrean bilduta kapitain bat aukeratuko zuen. Eta horretarako baliozko borondatezkorik ezean, Alkatea bera izango zen kapitaina, Kontzejukideak ofizial lagun zituela (40. Ord.)[42].

---

40. TRUCHUELO, 2004: 39-162.

41. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 51-52. folioak.

42. SUA. A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp., 49-51. folioak. Jada 1430ean adostu zen Hiribilduaren eta alderrien artean Konpainia horren kapitaina edo kapitainak hautatzeko prozedura. Cfr. DÍEZ DE SALAZAR, 1993: doc. 162. dok. (8-03-1430), 199. Foru garaiko Gipuzkoako historia militarrean erret armada Probintziatik nola pasa zitekeen arauturik zegoen: ik.: EGAÑA, 1992: 165-192; eta foru-erregimeneko bizitza militarraz: Ib. 311-333.

## 8. ONDORIO BIDEZ

Zuzenbidearen historialarien eskuetan jartzen dudan Segurako Ordenantzen aurkezpen hau ez da hori baizik: aurkezpen xume bat. Berri-emate honen ondoren, jakin-alor horretan dabiltzanek jarraitu beharko dute lana.

Ordenantzen testua ez da zabalegia: 64 orrialde ditu esku-idazkian (orrialdeko 31 lerro dituela); "azken Ordenantza Orokorra" ahaztu gabe, "Sarrera" eta 52 artikulutan banatuta dago. Errenteriakoak, alderantziz, 156 atalburu zituen, 12 izenburutan banatuta (1518); Tolosakoak 119 (1532-1539) eta Oriokoak 53 (1607)[43].

Ordenantza honetako arauek, esandako 52 artikuluetan, gai-aniztasun aski dute, eta irakurleak hemen bertoko eranskinean ikus dezake hori.

Segurak leku deigarria hartu zuen Gipuzkoako Hiribilduen artean, XIII-XVIII. mendeetan gutxienez, eta horrek interes nabariagoa gehitzen dio Ordenantza honetako testuari. Bestalde, azpimarratu dugu Ordenantza hauek herriaren 500 urtetako eskarmentuaren argitan idatzi nahi izan zirela, baina, hain zuzen, Segura Probintzian maila apalago batera pasatu baino hamarkada gutxi batzuk lehenago.

Datak ere badu interesa (1723). Ordenantza hau ez da, beraz, aztertu izan diren beste batzuen garaikoa (Errenteria, Tolosa, Hondarribia, Orio), borbondarren erreforma-garaietan dator, Lardizabaldarrak herrian punturik gorenean daudenean. Testuinguru horregatik guztiagatik, beharbada alde berri edo helduagoren bat ere eskain lezake Segurako Ordenantza honek.

"Denbora luzeko" ibilaldi baten eta toki jakin bateko emaitza dira, eta testu proposatua idatzi eta onartu zutenek oinarritzat har zitekeen agiri idatzi bat bera ere eskuetan ez izan arren, arautegiak lehendik omen duen funtsa baieztatzen du testuan herriko Kontzejuak. Iraganaren balioa eta indarra berreskuratu nahirik idatzita dago.

Ordenantzen arretarik handiena herriko gobernuaren antolaera, udal ondarea, fiskalitatea eta ekonomia dira. XVII. mende-hasierako krisiaren ondoren eta urte haietan (1700-1740), artean, herriak badu bere baitan gidaritza sozio-politiko sendo bat (garaiko herrilanak ere horren lekukoak dira). Ordenantzek, bada, garaiko borondate politikoa erakusten dute. XVIII.eko bigarren erdian agertuko zen Seguran molde berri bateko modernitate-krisia (bide desbideratuak, gerrak, demografia erlatiboki geldia, etab.).

Testu honen balio juriko-soziala eta interes historikoa Ordenantzen eremu honetako adituek aztertu beharko dute, eta horretarako lehen urrats bezala eman ditut argibide hauek, beste gabe.

---

43. TRUCHUELO, 1998: 358-359.

## BIBLIOGRAFIA

### a) Segurako historiaz

(1722-1723): *Ordenanzas municipales*. Segurako Udal Artxiboa (=SUA): Bi kopia:: A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 14. Esp., eta: A Sek., 6. Neg., 1. Lib., 15. Esp.

ANDRES, B.; ETXEBERRIA, P.; VIVES, G. *Inventario del Archivo Histórico de la Villa de Segura*. 1983. (Argitaragabea, baina eskueran Donostiako KM Kulturunean eta Segurako Udaletxean).

AYERBE IRIBAR, M. R. "La Parzonería General de Alava y Guipúzcoa y la concordia de 1430. Análisis documental". In: *Anuario de Estudios Medievales. Homenatge a la memòria del Prof. Dr. Emilio Sáez*. Barcelona. I, 1989; 365-377.

—. *Colección Diplomática del Concejo de Segura (Guipúzcoa) (1290-1520)*. Tomo III: *1450-1520*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2006.

DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L. M.: *Colección Diplomática del Concejo de Segura (Guipúzcoa) (1290-1500)*. Tomo I: *1290-1400*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1985.

—. *Colección Diplomática del Concejo de Segura (Guipúzcoa) (1290-1500)*. Tomo II: *1401-1450*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1993.

GARMENDIA LARREA, J. C. *Historia médica de la Villa de Segura, en Guipúzcoa*. San Sebastián: UPV-EHU, 1992. (Doktore-tesi argitaragabea).

INTXAUSTI REKONDO, J. (ed.): *Segura historian zehar*. Segura: Segurako Udala, 2003.

—. *Segura en su pasado y camino*. Segura: Segurako Udala, 2006.

—. *Segurarren historia*. Segura: Segurako Udala, 2006.

— (ed.) *Segura en su arte y monumentos*. Segura: Segurako Udala. 2006.

OSÉS, C. *El romance medieval en el País Vasco: los documentos del Concejo de Segura (Guipúzcoa) (1290-1450)*. Bilbao: Universidad de Deusto, 1991. (Doktore-tesi argitaragabea, mikrofitxetan).

URZAINQUI, A. *Comunidades de montes de Gipuzkoa: las Parzonerías*. San Sebastián: Universidad de Deusto, 1990.

### B) Udal bizitza eta Ordenantzei buruz

AYERBE IRIBAR, M. R.; DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L. M. *Andoain, de tierra a villazgo (1379-1615). Un caso modélico de preautonomía municipal en Gipuzkoa*. Andoain: Andoaingo Udala / Kutxa Fundazioa, 1996.

—. "Ordenanzas municipales de Hernani (1542). Estudio y transcripción". In: *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País XXXVIII*, 1982; 257-335.

—. "Ordenanzas municipales de Oñate. Estudio y transcripción". In: *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País XLII*, 1986; 91-228.

—. "El gobierno del Valle de Léniz. Sus primeras Ordenanzas Municipales". In: *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País LXII*, 2006.

DÍEZ DE SALAZAR, L. M. "El régimen municipal en Guipúzcoa". In *Derecho. Cuadernos de Sección*. Nº 1, Donostia: Eusko Ikaskuntza. 1984; 175-229.

EGAÑA, B. A. *Instituciones y colecciones histórico-legales pertenecientes al gobierno municipal, fueros, privilegios y exempciones de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*. Donostia/San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Guipúzcoa, 1992.

GARCÍA FERNÁNDEZ, E. *Gobernar la ciudad en la Edad Media: Oligarquías y elites urbanas en el País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2004.

MADARIAGA, J. J. "Municipio y vida municipal vasca de los siglos XVI al XVIII". In: *Hispania*, nº 143, 1979; 505-557.

SORIA, M. L. *Derecho municipal guipuzcoano. (Categorías normativas y comportamientos sociales)*. Oñati: IVAP, 1992.

TRUCHUELO, S. *El gobierno urbano en la villa de Tolosa. Organización política interna y ámbitos de actuación del poder concejil (siglos XVI-XVII)*. Santander, 1994.

—. "Reglamentación política de las Villas guipuzcoanas en la Alta Edad Moderna: las Ordenanzas concejiles de Rentería, Tolosa, Hondarribia y Orio". In: *Vasconia*, 25, 1998; 357-383.

— *Gipuzkoa y el poder real en la Alta Edad Moderna*. Donostia-San Sebastián: Diputación Foral, 2004.

## ERANSKINA

### Relación de las Ordenanzas (Segura, 1723)

| | |
|---|---|
| Introducción | [Firmantes. Razones históricas de las presentes Ordenanzas]. |
| Ordenanza 1ª | Cuándo y dónde se han de hacer las elecciones de los oficios del gobierno de esta Villa de Segura. |
| Ordenanza 2ª | Quiénes y cuántos han de ser elegidos para los otros oficios. |
| Ordenanza 3ª | De las calidades que han de tener para los oficios del gobierno. |
| Ordenanza 4ª | De los millares que han de tener quienes entran en las elecciones. |
| Ordenanza 5ª | Que los que tuvieren pleito con la Villa o fueren sus deudores no puedan ser admitidos. |
| Ordenanza 6ª | De la formas de las elecciones del Gobierno. |
| Ordenanza 7ª | Del empleo de los tenientes. |
| Ordenanza 8ª | De los asientos y orden de votar en Ayuntamiento Particular. |
| Ordenanza 9ª | De los Aiuntamientos Generales de vezinos. |
| Ordenanza 10ª | De los Aiuntamientos Generales de vezinos y moradores. |
| Ordenanza 11ª | Forma de la comvocatorias de todos los Aiuntamientos. |
| Ordenanza 12ª | Que no concurra en Aiuntamiento alguno en cosa propia. |
| Ordenanza 13ª | Que los Escribanos del Aiuntamiento decreten los Acuerdos de la Villa. |
| Ordenanza 14ª | Del primer Aiuntamiento particular. |
| Ordenanza 15ª | De los sermones y festividades anuales que celebra esta Villa. |
| Ordenanza 16ª | De la ocupazión de los Regidores. |
| Ordenanza 17ª | De las panaderas. |
| Ordenanza 18ª | De los precios del pan. |
| Ordenanza 19ª | De otros abastos y reconozimiento de pesos. |
| Ordenanza 20ª | De la obligazión del Síndico Procurador General. |
| Ordenanza 21ª | Del cuidado de las medidas de las tavernas. |
| Ordenanza 22ª | Que el Síndico deva atender al Bien Público y Común. |
| Ordenanza 23ª | De la Carnizería. |
| Ordenanza 24ª | De la residencia. |
| Ordenanza 25ª | Del Cavallero Juntero. |
| Ordenanza 26ª | Del Archivo de la Villa. |
| Ordenanza 27ª | De las quentas de los maiordomos. |
| Ordenanza 28ª | De las libranzas de la Villa. |

Ordenanza 29ª Visita de los términos de la Villa.
Ordenanza 30ª Visita del Puerto de San Adrián.
Ordenanza 31ª Visita del valle de Ursuaran.
Ordenanza 32ª Rozaduras en los propios de la Villa.
Ordenanza 33ª De las sidras de esta Villa.
Ordenanza 34ª Orden de la venta de todas las sidras.
Ordenanza 35ª Almonedas y remates de las rentas de esta Villa.
Ordenanza 36ª De los aranceles.
Ordenanza 37ª De la Alhóndiga.
Ordenanza 38ª De los que salen a comprar fuera de la Villa.
Ordenanza 39ª De la foguera.
Ordenanza 40ª Del repartimiento de soldados.
Ordenanza 41ª Alardes de ejercicio militar.
Ordenanza 42ª De las prendarías [de ganados].
Ordenanza 43ª Del tiempo de la prendaría.
Ordenanza 44ª De las cabras.
Ordenanza 45ª De las numerías [de Escribanos] de la Villa.
Ordenanza 46ª De los registros de las numerías.
Ordenanza 47ª Del sello y cartas de la Villa.
Ordenanza 48ª De los advenedizos.
Ordenanza 49ª Del Alcalde de la Hermandad.
Ordenanza 50ª De los salarios ordinarios que paga la Villa.
Ordenanza 51ª Lectura de estas Ordenanzas.
Ordenanza 52ª Ordenanza General.